

bilbao **museoa**

BBKateak

Ribera – Bados

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

bbk 

Ribera – Bados

4. aretoa

Eraikin zaharra


0 solairua

Lurrera jaitsi

Minimoaren sinpletasunak argiaren, espazioaren eta bolumenaren lezioak ezkututzen ditu Badosengan, bai zinta itsaskorrez lotutako bi kristal finetan, bai lurzoruaren gainean dagoen burdinazko, berunezko eta trapuzko pieza enfatikoan. Haren ondoan, Ribera San Sebastian etzanekoaren alde jokutzen du –beste ikonografia batzuek nahiago dute bertikala eta martirioaren zutabeari lotua–, drama barrokoz argizatzen dituen oihal batzuen tolesez inguratuta.

O Eraikin zaharra

0 solairua



José de Ribera

1591-1652

Caravaggioren erako estetikaren aitzindaria eta Napolesko eskolako maisu nabarmena izana, Riberak langintza osoa Italian garatu zuen arren, Napoles garai hartan erregeordetza espainiarra zen, eta haren lan ugari iritsi ziren Espainiara; hurrengo margolariengan eragina izan zuen, hala nola Velázquez eta Murilloengan. Sarritan martirio-eszena latzak irudikatzen dituen erlijio-pinturagatik ezagunagoa bada ere, gai mitologikoak ere jorratu zituen, eta grabatzaile sonatua izan zen; genero horretako ekoizpen zabala kontserbatu da. Kromatismoa argitzen joan zitzaion ibilbidearen amaiera aldera, Van Dyck bezalako pintoreen eraginez.



Emakume santuak San Sebastian sendatzen

c. 1620-1623. Olioa mihisean

Gaztaroko obra honetan, San Sebastian etzanda dago, biluzik, eskuineko besoa oraindik torturatu duten zuhaitzetik zintzilik duela. Santa Luzia geziak ateratzen ari zaio ondoan, eta Santa Irene zaurietan sendatzeko ukenduak ezartzera doa. Bi aingeruk koroa eta palma dauzkate eskuetan, martirioaren sinboloak. Errealismo tenebristaren maisua izanik, arreta hiru figuretara bideratzeko banatu zituen Riberak argi-itzalak, santuaren gorputz-osaera anatomiko akasgabea nabarmenduz, eskortzo ausartean irudikatuta.

1924an eskuratua

Ángel Bados

1945

Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan, Bilboko Arte Ederren Fakultatean eta Donostiako Artelekun irakaskuntza-esperientzia handia izanik, eskultura eta instalazioa lantzen ditu, bere belaunaldiko beste artista batzuek bezala, Oteizaren eraginpeko ikuspegi kontzeptual batetik. Prozesu alderdiei dagokien beste erreferenteetako bat Joseph Beuys da. Haren lanean azpimarratzekoak dira materialen tratamendu bikaina eta horien arteko lotura. Aitortza ugari jaso ditu, horien artean Espainiako Arte Plastikoetako Sari Nazionala, 2018an.



Izenbururik gabea

1985. Burdinurtua, beruna eta oihala

80ko hamarkadaz geroztik, Badosen lana posminimalismoaren ildoan kokatu da, eta eskultura hau horren erakusle da. Eskultura idulkitik erori ostean, hark osagai dituen elementuak lurzoruaren plano horizontalean kokatuta daude, diagonal nabarmena eratuta. Hala, forma eta materia desberdinez osatutako eskaintza moduko bat eratu dute, multzokatze-keinuak aldatutako irudikapen baten ezaugarriak dauzkana, zeinetan oihala, altzairu urtuarekin eta berunarekin aurrez aurre jarrita, sentikortasuna helarazteko bitarteko bihurtu den.

2002an eskuratua



Izenbururik gabea

1993. Kristala, zinta itsasgarria eta burdina

Formaz delikatuak eta materiaz hauskorak diren bi pieza biki besarkatzean eskultorearen gorputzak egindako keinu ahaltsutik sortutako lana da. Pieza horiek enbalatze-zintarekin elkartu ditu, eta hormaren gainean bermatuta daude, oreka sendo bezain eskasean. Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren diseinuetan inspiratutako beirazko edalontzien arteko harremanaren ezintasuna itxurazkoa dela eta, topaketa behartu hau ordena modernoa haustearren eta zatikatua josteko ahaleginaren erantzun bideragarri eta hunkigarri bihurtu du.

2002an eskuratua

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.